

**ATXILOKETAK.** Beste lau etxe miatzeko asmoa duela iragarri zuen EAEko Herrizaingo Sailak atzo

# Ertzaintzak bi lagun atxilotu ditu Bilbon, eta lau etxe miatu dituzte

*Bizkaia komandoarekin lotu dituzte atxilotutakoak, eta bost kide identifikatu dituztela diote*

Erredakzioa | BILBO

Ertzaintzak bi lagun atxilotu zituen atzo Bilbon. Atxiloketak 13:30ean gertatu ziren Salazar Jenerala kalean. Bi lagunak, Jesus Lopez eta Julen Ibañez, furgoneta batean zihoazen, eta une hartan Ertzaintza etxe bat miatzen ari zen aipatutako kalean, antza denez Ana Lopez (Jesusen arreba) atxilotzeko asmoz. Lopez nebarreben gurasoek frutadenda daukate Salazar kalean, eta atxiloketa gertatu zen unean bi gazteak frutadendako furgonetan zihoazen. Herrizaingo Sailak ETaren *Bizkaia komando*ko kideak izatea leporatzen die, Europa Press agentziak adierazi zuenez.

## Beste hiru miaketa

Horrez gainera, gutxienez beste hiru etxe miatu zituen Ertzaintzak Bilbon. Goizaldeko seiak aldera, Ertzaintzak pisu bat miatu zuen Licenciado Poza kaleko 34. zenbakian. Herrizaingo Sailak adierazitakoaren arabera, etxe hori joan den astelehenan Basurtun hildako ustezko ETako kideek erabilia izan zen, eta bertan dinamita, lehergaia egiteko osagai kimiko eta elektronikoak eta zenbait agiri aurkitu zituzten, beti ere Herrizaingo Sailaren arabera. Etxearen



ALFREDO ALDAI / EFE

Ertzaintza Sorkunde kalean eginiko miaketatik atera zituen gauzak eramaten.

jabea Iñigo Ripoll gaztea dela esan zuen.

Handik gutxira, 6:30etan, beste pisu bat miatu zuten Bilboko Sorkunde kaleko 16. zen-

bakian, Santutxu auzunean. Bertan Iñigo Ripollen gurasoak bizi dira. Ertzaintzak Ripollen anaiaren ordenagailua eta hainbat aldizkari eraman zituzten

ertzainek. Bederatziak aldera ertzainak Indautxuko ikastetxe batera joan ziren, Iñigo Ripolle bertan lan egiten duelako, baina ez zuten aurkitu.

## EGOZTEN DIETENA

Hiru kazetariei bidalitako bonba-paketeekin eta Zierbenako bonba-autoarekin lotzen dituzte identifikatutakoak

Hiru horiez gain, antza denez, laugarren etxe bat ere miatu zuen Ertzaintzak. Izan ere, Javier Balza Herrizaingo saiburuak adierazi zuen orotara lau etxe miatu dituztela, eta datozen orduetan beste lau miatzeko asmoa dutela, baina ez zuen bestelako daturik eman horren inguruan.

Europa Press agentziak esan zuenez, miaketa guztiak Auzitegi Nazionalako bigarren epaitegiak agindu zituen.

Operazioaren berri emateko, Javier Balza Herrizaingo saiburuak komunikabideen aurrean agertu zen, eta esan zuen *Bizkaia komando*ko bost kide identifikatu dituztela. Horien artean ez daude atzo goizean Bilbon atxilotutako bi pertsonak. Balzak leporatu zien identifikatutakoei urtarrilaren 17an hiru kazetariri bidalitako bonba-paketeekin zerikusia izatea, bai eta Zierbenan aurkitu zuten bonba-autoarekin ere.

Balzak esan zuenez, operazioa garrantzitsua da «ikertzeko bideak zabaltzen dituelako eta *Bizkaia komando*aren azpiegitura gehiago topatzeko bide berriak irekitzen dizkigulako». «Hala ere», gaineratu zuen, «zuhur ibili behar dugu, Bizkaian beste talde bat dagoela uste dugulako».

**HERRI EKIMENA.** Alderdien Legea eta Garzonen autoak salatu dituzte, eta herritarrei askatasunen alde egiteko dei egin diete

## Askatasun murrizketa salatzekeo plataforma «anitza eta zabala» eratu da Nafarroan

Irene Arrizurieta | IRUÑEA

Euskal gizartea nozitzen ari den askatasun murrizketa salatzekeo plataforma «irekia eta anitza» eratu dute hainbatek Nafarroan. Alderdien Legea eta Baltasar Garzon epailearen azken autoak arbuiatzen dituen manifestua egin dute eta neurrian aurkako sinadura bilketa hasi.

*Nafarroa askatasunen alde* ekimena aurkeztu zuten atzo Iruñean gizarteak bizi dituen iritzi, manifestazio eta elkarretaratze askatasun murrizketak zein bazterketa politikoa deitoratzeko. Pablo Lorente IUNEBko legebiltzarkide ohia

mintzatu zen editore, musikagile, artista, idazle, kazetari, edota irakasleak biltzen dituen ekimenaren izenean. Lorentek esan zuen ekimena «herritar orori» irekia dela. Nafarroak jatzotzen duen «erakundearen autoritarismoari» buelta emateko premia azpimarratu zuen. Hori herri ekimenak bultzatuz egingen dela zioen. Aurkeztu manifesturako mila lagunen eta ehun elkarteren sinadura biltzen hasi dira, eta ekitaldia prestatu dute datorren larunbaterako Iruñean. Halaber, urriaren 19rako elkarretaratzea deitu dute. [100@euskalherria.org](mailto:100@euskalherria.org) helbidea eman dute harremanetarako.



JAGOBA MANTEROLA / ARGAZKI PRESS

Plataformako kideak atzo Iruñean egin zuten aurkezpenean.